

**DERECHOS,  
NO TRINCHERAS.**

**SOLDATAK, ETXEBIZITZA  
ETA DEMOKRAZIA**

**1º de  
mayo**

**2026**

**UGT**



**Euskadi**

# **Manifiesto Primero de Mayo 2026**

## **Derechos, no trincheras. Salarios, vivienda y democracia**

Las organizaciones sindicales UGT y CCOO, comprometidas con un sindicalismo de clase, internacionalista y profundamente democrático, convocamos a la ciudadanía a participar en las movilizaciones del 1º de Mayo de 2026. Lo hacemos en un momento decisivo, en el que están en juego no solo las condiciones de vida de la clase trabajadora, sino la propia calidad de nuestras democracias.

Frente a quienes pretenden dividirnos, enfrentarnos y levantar trincheras, el movimiento sindical responde con más derechos, más cohesión social y más democracia.

Vivimos un contexto internacional marcado por la inestabilidad, la guerra y el cuestionamiento del derecho internacional. Los regímenes autárquicos y plutocráticos, liderados por la administración Trump, están erosionando el equilibrio del orden internacional, impulsando un escenario de creciente inestabilidad en el que los valores democráticos se ven cada vez más debilitados y cuestionados.

La escalada del conflicto en Oriente Medio, la persistencia de guerras abiertas en distintas regiones del mundo, como la agresión a Ucrania, el genocidio en Gaza o ataques indiscriminados en el Líbano, evidencian el fracaso de la comunidad internacional para garantizar la paz. Reclamamos el respeto estricto al derecho internacional, el fin de las guerras y la protección de la población civil. No puede existir una doble vara de medir en la defensa de los derechos humanos; deben depurarse todas las responsabilidades por los crímenes de lesa humanidad.

Exigimos una Unión Europea valiente y propositiva que se comprometa en la defensa de los derechos humanos en el Mundo. Por eso, CCOO y UGT, junto a la Confederación Europea de Sindicatos, se movilizarán para exigir una respuesta social de la Unión tanto en sus políticas comunitarias como en su papel como actor geopolítico

El sindicalismo, como actor global, reafirma su compromiso con la paz, la justicia social y la cooperación entre los pueblos.

Pero también asistimos a una amenaza creciente que se infiltra como caballo de Troya en el seno de nuestras sociedades. El avance de la ultraderecha, en España y en el mundo, no es una opción política más: es un proyecto que cuestiona derechos fundamentales, alimenta el odio y debilita la democracia.

La proliferación de partidos de ultraderecha en nuestro país está generando un clima creciente de crispación y polarización política, marcado por el avance de posiciones reaccionarias que se alimentan del machismo, la LGTBIfobia, la aporofobia y el racismo, envueltas en un nacionalismo rancio y nostálgico de un pasado que algunos pretenden resucitar. En este contexto, los discursos racistas, promueven escenas como las acontecidas hace unos meses en la ciudad de Torre Pacheco o de los cánticos contra la población musulmana escuchados recientemente en el partido de fútbol de la selección española, no son hechos aislados: son síntomas de una deriva peligrosa que debemos frenar colectivamente.

En nuestro país, las organizaciones sindicales valoramos la puesta en marcha del proceso de regularización extraordinaria de personas migrantes, una medida de justicia imprescindible que debe garantizar derechos y poner fin a la explotación laboral.

Frente a quienes promueven el odio, el sindicalismo defiende la igualdad, la convivencia y los derechos humanos. Sin diversidad no hay democracia. Sin democracia no hay derechos laborales.

España debe afrontar además retos estructurales que requieren respuestas de Estado: la emergencia climática, la vertebración territorial, el reto demográfico —que afecta especialmente a jóvenes y personas migrantes— y el refuerzo de los servicios públicos, deben reforzar las garantías de igualdad y cohesión social. España tiene una oportunidad inmejorable para mejorar la competitividad de su modelo productivo, reequilibrando económica y socialmente el territorio y mejorando la calidad del empleo, de la mano de las energías renovables. Esta es la columna vertebral de la propuesta sindical para un Pacto de Estado por la Emergencia Climática que trasladamos al Gobierno recientemente.

En otro orden de cosas, la vivienda se ha convertido en una emergencia social. No puede ser tratada como un bien de especulación. Es imprescindible un pacto social y político y una intervención pública decidida que garantice el acceso a una vivienda digna, con un parque público suficiente y mecanismos eficaces para garantizar el acceso seguro y asequible al conjunto de la ciudadanía, especialmente a las personas jóvenes.

Porque sin vivienda, no hay proyecto de vida. Y sin proyecto de vida, no hay cohesión social ni democracia.

En España, los avances logrados en los últimos años demuestran que otra política económica y laboral es posible. El diálogo social ha permitido mejorar el empleo, reducir la temporalidad y subir salarios. Pero no es suficiente, millones de personas ven como su situación económica no les permite cubrir sus necesidades básicas con suficiencia.

Es el momento de consolidar y profundizar las reformas progresistas que den continuidad a las realizadas los últimos años. Por eso, las organizaciones sindicales impulsamos una plataforma unitaria centrada en la reforma del despido conforme a la Carta Social Europea, la regulación del contrato a tiempo parcial para acabar con su uso fraudulento, el refuerzo del diálogo social y la negociación colectiva para repartir la riqueza y mejorar salarios, y una respuesta decidida al problema de la vivienda, principal factor de desigualdad, especialmente para jóvenes y personas trabajadoras.

**DERECHOS,  
NO TRINCHERAS.**

**SALARIOS , VIVIENDA  
Y DEMOCRACIA**

El fortalecimiento de la negociación colectiva debe ser una prioridad. Necesitamos un nuevo impulso del Acuerdo por el Empleo y la Negociación Colectiva, que permita seguir elevando los salarios, reducir la jornada laboral y distribuir de manera justa los incrementos de márgenes y beneficios obtenidos por la inmensa mayoría de las empresas de nuestro país.

En este contexto de transformación tecnológica, la digitalización y la inteligencia artificial deben estar al servicio de las personas trabajadoras. La mejora de la productividad debe traducirse en mejores salarios, menos tiempo de trabajo y más derechos, no en mayor precariedad o control empresarial.

El sindicalismo es y seguirá siendo el instrumento fundamental para garantizar una distribución justa de la riqueza generada.

Hoy, más que nunca, es necesario activar la movilización sindical y social.

Porque los derechos no se regalan: se conquistan.

Porque cada avance ha sido fruto de la lucha colectiva.

Porque frente al ruido, el odio y la división, la clase trabajadora responde con unidad, derechos y democracia.

## **Este Primero de Mayo llamamos a la movilización:**

- Por la mejora de la Seguridad y la Salud en el trabajo
- Por la reforma del despido, para ganar seguridad
- Por la regulación del tiempo parcial, para acabar con la precariedad
- Por salarios dignos, para vivir mejor
- Por la reducción de la jornada, para ganar tiempo de vida
- Por la negociación colectiva, para ganar derechos
- Por la vivienda, por ser un derecho básico
- Por los servicios públicos, para asegurar igualdad
- Por la transición ecológica justa, para construir futuro
- Por la igualdad y la diversidad, para defender la democracia
- Por el sindicalismo, para fortalecer la democracia

**Derechos, no trincheras.  
Salarios, vivienda y democracia.  
¡Viva el 1º de Mayo!**

# ma ia tzak

**DERECHOS,  
NO TRINCHERAS.**

**SOLDATAK,  
ETXEBIZITZA  
ETA DEMOKRAZIA**

**2026**

**UGT**



**Euskadi**

## **2026ko Maiatzaren Lehena**

### **Eskubideak, ez lubakiak. Soldatak, Etxebizitza eta Demokrazia**

UGT sindikatutik, klaseko sindikalismoarekiko konpromisotik abiatuta, internazionalista eta muturreraino demokratikoa, euskal herritarrek 2026ko maiatzaren 1eko mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditugu. Une erabakigarrian gaude, langile klasearen bizi-baldintzak ez ezik, gure demokraziak ere jokoan daudelako.

Gure artean zatitu eta lubakiak altxatu nahi dituztenen aurrean, mugimendu sindikalak eskubide gehiagorekin, kohesio sozial handiagorekin eta demokrazia gehiagorekin erantzuten du.

Ezegonkortasunak, gerrak eta nazioarteko zuzenbidea zalantzan jartzeak markatutako nazioarteko testuingurua bizi dugu. Erregimen autarkiko eta plutokratikoak, Trumpen administrazioa buru dutenak, nazioarteko ordenaren oreka higatzen ari dira, gero eta ezegonkortasun handiagoa bultzatuz, non balio demokratikoak gero eta ahulago eta zalantzan jartzen diren.

Ekialde Ertaineko gatazkaren gorakada, gerra irekien iraupena munduko hainbat guneeetan, hala nola Ukrainaren aurkako erasoak, Gazako genozidioa edo Libanoko erasoak, agerian uzten dute nazioarteko komunitateak porrot egin duela bakea bermatzeko zereginean. Nazioarteko zuzenbidea zorrotz errespetatzeko eskatzen dugu, gerren amaiera eta biztanleria zibilaren babesa. Ezin da jarrera kontraesanekin jokatu giza eskubideen defentsan; gizateriaren aurkako krimen guztiak argitu behar dira.

Europar Batasun ausarta eta propositiboa eskatzen dugu, giza eskubideekin konprometitukoa. Horregatik, UGTk, Europako Sindikatuen Konfederazioarekin batera, mobilizazioa egingo du Batasunaren erantzun soziala eskatzeko, bai bere politketan, bai eragile geopolitiko gisa jokatzeko duen paperean.

Sindikalismoak, aktore globala den aldetik, bakearekiko, justizia sozialarekiko eta herrien arteko lankidetzarekin konpromisoa berresten du.

Baina, era berean, gero eta mehatxu handiagoa dugu, Troiako zaldia gure gizartean baitan. Ultraeskuinaren aurrerapena, Espainian eta munduan, ez da beste aukera politiko bat: oinarrizko eskubideak zalantzan jartzen dituen proiektua da, gorrotoaren gainean eraiki da eta demokrazia ahultzen du.

Ultraeskuineko alderdien gorakada gure herrialdean sortzen ari den krispazioa eta polarizazio politiko gero eta handiagoak dira, eta matxismotik, LGTBIfobiatik, aporofobiatik eta arrazakeriatik elikatzen diren erreakzionarioak, nazionalismo zahar eta nostalgiko batean murgildurik, batzuek berpiztu nahi dute. Testuinguru horretan, diskurtso arrazistak (Torre Pacheko, futbol partiduetan entzundakoak...) ez dira gereta isolatuak, noraez arriskutsu baten sintomak dira, eta kolektiboki geldiarazi egin behar ditugu.

Gure herrian, erakunde sindikalok migratzaileen ezohiko erregularizazioa balioan jarri dugu, ezinbesteko justizia-neurria da eskubideak bermatu eta lan-esplotazioari amaiera emateko.

Gorrotoa sustatzen dutenen aurrean, sindikalismoak berdintasuna, bizikidetzeta eta giza eskubideak defendatzen ditu. Aniztasunik gabe ez dago demokraziarik. Demokraziarik gabe ez dago lan eskubiderik.

Espainiak aurre egin behar die Estatu-erantzunak behar dituzten egiturazko erronkei: krisialdi klimatikoa, lurraldearen egituraketa, erronka demografikoa — horrek bereziki gazteei eta migratzaileei eragiten die— eta zerbitzu publikoak indartzea, berdintasunaren eta gizarte-kohesiorako bermeak indartu behar dituzte. Espainiak aukera bikaina du bere produkzio-ereduaren lehiakortasuna hobetzeko, lurraldeak ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik berrantolatuz, eta enpleguaren kalitatea hobetuz eta energia berriztagarriak sustatuz.

Bestalde, etxebizitza premia soziala bilakatu da. Ezin da espekulazio-ondasun gisa jorratu. Ezinbestekoa da itun sozial eta politiko bat, etxebizitza duin baterako sarbidea bermatuko duen esku-hartze publiko nahikoa eta mekanismo eraginkorrak behar dira, herritar guztiei eta, batez ere, gazteei.

Izan ere, etxebizitzarik gabe, ez dago bizitza-proiekturik. Eta bizi-proiekturik gabe, ez dago gizarte-kohesiorik ez demokraziarik.

Espainian, azken urteetan lortutako aurrerapenek agerian uzten dute beste politika ekonomiko bat posible da, lan baldintzak barne. Elkarrizketa sozialak aukera eman du enplegua hobetzeko, behin-behinekotasuna murriztu eta soldatak igotzeko. Baina ez da nahikoa, milioika pertsonak ikusten dute beren egoera ekonomikoa ez diela ahalbidetzen oinarrizko premiak nahikotasunez betetzen.

Azken urteetan egindako erreforma aurrerakoiak sendotzeko eta horietan sakontzeko unea da. Horregatik, sindikatuok plataforma bateratu bat bultzatzen dugu, Europako Gutun Sozialaren arabera kaleratzearen erreforman, lanaldi partzialeko kontratuaren erregulazioan (haren iruzurrezko erabilerarekin amaitzeko), elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa indartzean (aberastasuna banatzeko eta soldatak hobetzeko) eta etxebizitzaren arazoari erantzun irmoa ematean (desberdintasun-faktore nagusia da, batez ere gazteentzat eta langileentzat) oinarrituta.

Negoziazio kolektiboa indartzeak lehentasuna izan behar du. Enpleguari eta Negoziazio Kolektiboari buruzko akordioa berri bat bultzatu behar dugu, soldatak igotzen jarraitu, lanaldia murriztu eta enpresa gehienek lortutako marjinak eta etekinak modu bidezkoan banatzea ahalbidetzeko.

Eraldaketa teknologikoaren testuinguru horretan, digitalizazioak eta adimen artifizialak langileen zerbitzura egon behar dute. Produktibitatearen hobekuntzak soldata hobeak, lan-denbora gutxiago eta eskubide gehiago ekarri behar ditu, eta ez prekariedade edo enpresa-kontrol handiagoa.

Sindikalismoa oinarrizko tresna da, eta izango da, sortutako aberastasunaren banaketa zuzena bermatzeko.

Gaur, inoiz baino gehiago, eiznbestekoa da mobilizazio sindikal eta soziala aktibatzea.

Eskubideak ez direlako oparitzen: konkistatu egiten dira.

Aurrerapen bakoitza borroka kolektiboaren emaitza izan delako.

Izan ere, zarataren, gorrotoaren eta zatiketaren aurrean, langile klaseak batasunez erantzuten du, eskubideak eta demokrazia aldarrikatzen.

## **Maiatzaren Lehenean, mobilizaziora deitzen dugu:**

- Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko
- Kaleratzearen erreformagatik, segurtasuna irabazteko
- Lanaldi partzialaren erregulazioagatik, prekariedadearekin amaitzeko
- Soldata duinengatik, hobeto bizitzeko
- Lanaldia murrizteagatik, bizitzeko denbora irabazteko
- Negoziazio kolektiboaren alde, eskubideak irabazteko
- Etxebizitzaren alde, oinarrizko eskubidea delako
- Zerbitzu publikoen alde, berdintasuna ziurtatzeko
- Bidezko trantsizio ekologikoaren alde, etorkizuna eraikitzeko
- Berdintasunaren eta aniztasunaren alde, demokrazia defendatzeko
- Sindikalismoaren alde, demokrazia indartzeko

**Eskubideak, ez lubakiak.  
Soldatak, etxebizitza eta demokrazia.  
Gora Maiatzaren Lehena!**